

k u l t u r a l e i h o a

ezagutzen al
duzu
Donostia?

Gazteluene

Altzako herri zahar-
an, Lau- Aizeta etxea,
Pelegriñene eta Amueder
baserriak pasatu ondoren,
Molinaoko bide zaharra
jarraitzen dugu eta Gazte-
luene baserriko ataritik
pasatzen gara. Zer oroita-
razten digu baserri txiki
polit honek? Bada, gure
Txirrita maitatuaren etxea
dela. Bertan bizi izan zen
gure bertsolari haundia,
Oreretako Txirrita baserri-
tik gaztetan hona etorri
zenetik. Dena dela Herna-
niko Latze-Zar baserrian
jaioa zen; haurra zela Txir-
rritara ekarri zuten eta
hortik hartu zuen goitize-
na Jose Manuel Lujanbio
haundiak. Txirrita 1.936.
urteko ekainaren 3an hil
zen Gazteluene 75 urte-
rekin.

Urte batzuk lehenago
honela kantatu zuen Her-

naniko Ereñozun:

«Gazte gazterik asi nintzen da
oraindaño bitartian,
zenbait umore eder jarri det
Kantabriako partian,
pixka batian ez naiz aztuko
sartuagatik lurpian,
nere aipamenak izango dira
beste larogei urtian»

JOSU TELLABIDE



Ximon

Hau da Gazteluene gaur; ez gara gauza gure ondarea zaintzeko!

k a n t u t e g i a



J.I. ANSORENAK proposatua

Manuelatxo

*Manuelatxo eska zaiozu
barkazioa Andrei.*

*Beti horrela ibili gabe
majo zaharraren ihesi.*

*Napoleonen pauso gaiztoak
ondo dituzu ikasi.*

*Ez det Andrei barkazioa
nik eskatu beharrikan*

*ez detalako sekulan egin
inon behar ez danikan.*

*Ez det Andrei barkazioa
nik eskatu beharrikan.*

Amorioak hega luzeak

*beti bihotzaren bila!
Ni nahi nauena nere aurrera
belaunka jarri dedila.
Amorioak hega luzeak
beti bihotzaren bila.*

*Manuelatxo aditu zazu
Andresen borondatea.
Zure bihotza eta nerean
nahi luke bat egitea.
Manuelatxo aditu zazu
andresen borondatea.*

Donostia eta ingurietan oso erronka. Lehendabiziko
bertsoa nork egin duen da jakin. Baina Pepe Antola
ospetsuak (1864-1929) beste zazpi bertso jarri zituen.
"Garai hartako folletimen antzekoa. Juana Bixonta Olabe
edo Markesaren alabaren aldekoa.

HIPER
PRENSA

Colon pasealekua, 15
☎ 27 49 81 DONOSTIA

- Nazio eta nazioarteko prentsa
- Gazte eta helduentzako komikiak
- Hedapen zientifikoa • Opariak
- Liburuak • Adin guztietarako irakurgaiak

**Nahi duzun guztia aurki dezakezu
hemen. Edozein ordutan. Eguerdian ez
dugu ixten. Ordutegia: 7etatik 21etara.**

ETXEZARRETA

ANAIK

HARATEGIA
(Iñigo-Imanol)

- Bertako haragia
- Urdal eta gaztiz
beteriko oillazko
izterrak

BRETXA 17-18



MARIAREN BIHOTZA IKASTOLA

Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza - O.H.O.

Nafarroa Hiribidea 1, Tfnoa: 27 94 49 GROS